

SAN BIZENTE, 086-088 HILOBIA



Hilobiaren irudia

Kokapen-planoa

<i>Kokapena</i>	San Bizente, 086-088.
<i>Espedientea</i>	2210-14.
<i>Obra-zuzendaria</i>	José de Goicoa, arkitektoa.
<i>Egilea</i>	Ez da zehaztu espedientean.
<i>Sustatzailea</i>	Alacha kondea, Yrazábal. Gaur egun berrerabilia.
<i>Kronologia</i>	1886-12-29.
<i>Ehorzketa-mota</i>	Bi isurkiko lauzak dituzten bi hobik kale banatara ematen dute, eta erdian duten monumentuak elkartzen ditu.
<i>Materiala</i>	Hareharria. Arbel gisako materiala hildakoen erregistrarako, berrokupazioaren unekoa.
<i>Kontserbazio-egoera</i>	Ona
<i>Pertsona garrantzitsua 1</i>	Resurrección Miguel Lili-Idiaquez Zuloaga, Alachako I. kondea edo XI. Contedi Alacha, Sizialiako titulu gisa. Resurreciónekin Espainiako titulu bihurtu zen. Enrique Liliri eman zioten 1466an, Siracusako gobernadore karguagatik. Zestoako Lili dorretxeko leinua.
<i>Arkitektura</i>	Klasizismoa.
<i>Eskultura</i>	Podium altu baten eta oinarri mailakatu baten gainean gurutze bakun bat dago. D.O.M. siglak dira monumentuari gehitu zaizkion elementu bakarrak. Beltzez zizelkatuta daude hareharrian.
<i>Beirateak eta forja</i>	
<i>Beste batzuk</i>	D.O.M. sigla latindarrek 'Jainko onenari eta handienari' esan nahi dute eta Júpiter aipatzen dute. Erromatar Inperioa erori zenean, kristautasunak beretzat hartu zuen bere Jainkoari aipamena egiteko: 'Jainkoari, onenari eta handienari'.
<i>Babes-maila</i>	Berezia.